

PRENTSA-OHARRA

JOSÉ IGNACIO ASENSIO GIPUZKOAKO DIPUTATUGAI NAGUSIAK PSE-EE “ANIZTASUNA ETA KUDEAKETA ERAGINKORRA” BERMATZEN DITUEN ALDERDI BAKARRA DELA ALDARRIKATU DU

José Ignacio Asensio Gipuzkoako Diputatugai Nagusiak esan duenez, PSE-EEK "egonkortasuna" eman dio Gipuzkoaren gobernagarritasunari, eta, horretarako, Lurraldearen "aniztasuna" bermatu eta "gizarte-babesa, errespetua eta eskubideak" defendatu ditu. Lurraldeko lau barrutietako 51 hautagaien aurrean, bere alderdiak agintaldi honetan foru-gobernuan egin duen lana babestu du, eta esan du Foru Aldundiaren koalizioaren gobernuan PSE-EEK "Gipuzkoari adostasuna eta egonkortasuna" eman dizkiola. "Sozialistei esker, jendearen benetako lehenetsunez erantzun zaie: berdintasuna, enplegua, gizarte-politikak, trantsizio ekologikoa eta kultura demokratiko eta anitzaren aldeko apustua", esan du.

Gaur goizean Donostiako Miramar jauregian izan da ekitaldia eta, hartan, aldeen arteko elkar ulertzearen defendatzaile irmoa dela esan du, "nahiz eta desberdin pentsatu, nahiz eta desberdin hitz egin eta nahiz eta desberdin sentitu", baina berdina eskubideetan, "gure gotorlekua aniztasunaren defentsa baita". Hori dela eta, Asensiok azpimarratu du hausturarik eta banantzerik egon ez dadin, bermerik onena dela sozialista bat egotea Gipuzkoako Aldundiaren buru, eta esan duenez, "sozialistak ez gara egongo Gipuzkoa banandu nahi duen proiektu batean ere, subiranismoarekin eta independentziarekin".

Hori horrela, nazionalistei eskatu die "argiak izateko", eta, gainera, "hitz egiteko", eta "argi" hitz egiteko gipuzkoarrei, eta esateko "aniztasunaren aldeko edo frontismoaren aldeko apustua egiten duten", maiatzaren 28a baino lehen. Hitz horiek "Lizarran frontea egin zutenei" zuzendu dizkie, eta 2007ko foru-hauteskundeetan sozialistak baztertu zituztenei –nahiz eta orduan Gipuzkoan garaipen historiko batean irabazi zituzten hauteskundeak– eta, "2011n, gobernu erradikala eta independentista nahiago izan zutenei".

Jose Ignacio Asensiok PSE-EEK Gipuzkoako Aldundian eginiko kudeaketaren balioa nabarmendu du, kontuan hartuta pandemiaren, Ukrainako inbasioaren, krisi energetikoaren eta materialen krisiaren ondorioz agintaldia "kudeatzeko zaila izan dela". "Kudeaketa eraginkorra egin dugu", "eta kudeaketa horrek beharrei erantzutea, gizarte-babesa defendatzea eta politika aurrerazaleak aplikatzea izan ditu xede".

Ildo beretik, EHBilduren eskutik jasotako herentzia aipatu du, hondakinen kaosa eragin baitzuen, "sozialistok eman genien irtenbidea Gipuzkoako gizarteak zeuzkan gatazka jasanezinei eta eragozleei". PSE-EE harro egon daiteke Gipuzkoak zeukan arazo nagusia libratu duelako, "beste

Oficina de Prensa

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

prensa@socialistasgipuzcoanos.com

inork kudeatu ezin zuen moduan" kudeatu baitzuen: arazo zena "etorkizuneko aukera bilakatu du birziklapenaren sektorean, ekonomia zirkularrean eta industria-sektorearen sendotzean".

Era berean, PSE-EE kudeaketan erabakigarria izan dela esan du; izan ere, "Gipuzkoak zortzi urte hauetan aurrera egiteko" egonkortasuna emateaz gainera, Gipuzkoako Aldundiaren politikak markatu ditu. Sozialistek eskatuta, "pertsonek babesa" lehenetsi da, "beste batzuek bere garaian eginiko murrizketen politiken aurrean", eta sozialistak "foru-aurrekontuaren erdia gizarte-politiketara bideratzeko konpromiso irmoaren berme" direla esan du.

Bestalde, PSE-EEren kudeaketari esker, garraio publikoak eskubide gisa duen garrantzi estrategikoa sustatu du; izan ere, "hezkuntzara, osasunera, enplegura eta aisiara aukeraberdintasunean oinarrituta jotzeko aukera ematen duen bidea da". Mugi txartelaren garapen eredugarria nabarmendu du: "mugikortasunaren eta gizarte-eskubideen txartela, gehien erabiltzen dutenentzako eta gehien behar dutenentzako mailaz mailako deskontuak dituen"; garraioa ulertzeko modua finkatzen du, berdintasunaren eta gizarte-ekitatearen irizpideen arabera bermatu beharreko eskubide gisa.

Diputatugai nagusiak azaldu du Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskunde hauek eratzten dituzten lau barrutietako gizon eta emakumeak "xede bakarrarekin izango direla buru eta kudeatuko dutela: herritarren beharrei irtenbideak bilatzea eta erantzunak ematea", eta, batik bat, nazionalisten aurrean, identitate- eta ideologia-eztabaidak alde batera utzita. Gipuzkoako Batzar Nagusien buru izateko prestatuta dauden 51 hautagai dira, eta gobernatzeko onenak". "Zerrenda parekidea" dela esan du; "jende gaztea eta ibilbide luzekoa du, esperientzia handikoa udal- eta foru-kudeaketan, prestatua eta, batez ere, ilusioz eta Gipuzkoako buru izateko eta gehiengo sozialaren eskubide eta aukerak defendatzeko gogoz betea".

Dagoeneko aipatutako zerrendaburuez gainera –José Ignacio Asensio, Rafaela Romero, Susana García Chueca eta Alberto Albistegui–, honako pertsona ezagun hauek ere badira: José Antonio Santano Irungo alkatea eta Mikel Serrano Zumarragako alkatea, María José Telleria Kultura, Kirol, Lankidetzeta eta Gazteria Departamentuko diputatua, Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkate ohia eta Gipuzkoako Exekutibako Erakunde Politiketako idazkaria, eta Ana Priede, ETak 2002an erail zuen Juan Priede Orioko zinegotziaren alaba eta Julio Astudillo Gipuzkoako Batzar Nagusien bigarren presidenteordea, zeinak Donostialdeko barrutiko zerrenda ixten baitu, modu sinbolikoan.

Donostia/San Sebastián, 2023ko martxoaren 23a

Oficina de Prensa

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

prensa@socialistasguipuzcoanos.com